| Arabako Foru Aldundia<br>Diputación Foral de Álava<br>www.araba.eus | # Errolda ereduak betetzeko eta aurkezteko bideak |
|---|---|

| Eredua | Errolda ereduak betetzeko eta aurkezteko bideak |
|---|---|
| 009 eredua | • **Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa**<br>Horren bidez, ereduan dauden datuak bete eta balidatu egingo dira, bai eta aurkezpen telematikoa egin ere. 14 urtetik beherakoen kasuan IFZ eskatzen bada, ezin izango da eredua Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu. |
| | • **Ogasunean bertan**<br>Laguntza eskainiko da eredua bete eta aurkezteko Arabako Foru Ogasunean: |
| | • **Araba.eus**<br>Eredua online bete eta aurkeztuko da bide hauetakoren bat erabilita:<br>○ Ereduaren datuekin sortutako **pdf-a inprimatu** eta gero **Arabako Foru Ogasunean** aurkeztu.<br>○ Baliozkoa den **fitxategia sortu** eta aurkezpen telematikoa Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egin**.** |
| | • **Paperean**<br>Zergadunak Arabako Foru Ogasunean hartutako errolda eredua paperean bete eta aurkeztuko du. |

<table>
<tr>
<td>037 eredua</td>
<td>

- **Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa**

  Horren bidez, ereduan dauden datuak bete eta balidatu egingo dira, bai eta aurkezpen telematikoa egin ere.

  **Derrigorrezkoa** izango da Hileroko Itzulketen Erregistroan alta edo baja ematea eskatzen bada, edo zergadunak eredu informatiboetan 15 erregistro baino gehiago baditu.

  **Errenta egozketaren araubidean dauden erakundeek** EZingo dute eredua Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu honako kasu hauetan:

  1. IFZ eskatzen badute
  2. PFEZean zenbatespen objektiboko metodoa edo zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztua aukeratu eta, hala badagokio, ezeztatzen badute
  3. BEZean erregimen berezi erraztuari edo nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren erregimen bereziari uko egiten badiote

---

- **Ogasunean bertan** (Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztera behartuta ez dauden zergadunentzat)

  Arabako Foru Ogasunak laguntza eskainiko du eredua bete eta aurkezteko:

  - **Hitzordurik eskatu gabe**: helbideari, familia unitateari edo identifikazio datuei (pertsona fisikoen kasuan baino ez) buruzko aldaketak egiteko
  - **Hitzordua eskatuta:**
    - Errenta egozketaren araubidean dauden erakundeek IFZ eskatu nahi badute
    - Zergadunek eredu informatiboetan 15 erregistro baino gutxiago badituzte eta ez badute Hileroko Itzulketen Erregistroan alta edo baja ematea eskatu

---

- **Araba.eus**

  Eredua online bete eta aurkeztuko da bide hauetakoren bat erabilita:

  - Ereduaren datuekin **sortutako pdf-a inprimatu** eta gero **Arabako Foru Ogasunean** aurkeztu (Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztera behartuta ez dauden zergadunentzat baino ez).
  - Baliozkoa den **fitxategia sortu** eta aurkezpen telematikoa **Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren** bidez egin.

</td>
</tr>
</table>

| | |
|---|---|
| **036 eredua** | • **Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa**<br>Horren bidez, ereduan dauden datuak bete eta balidatu egingo dira aurkezpen telematikoan.<br>Eredua bide hau erabilita aurkeztea **derrigorrezkoa izango da**, **IFZ** eskatzean **izan ezik** (*).<br>• **Araba.eus**<br>Eredua online bete eta baliozkoa den **fitxategia** sortuta, aurkezpen telematikoa Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo da, IFZ eskatzean izan ezik (*).<br>**(*) IFZ eskatzea**<br>**IFZ** eskatzeko, zergadunak honako aukera hauek ditu:<br>○ Araba.eus bidez: IFZ eskatzeko, nahikoa da ereduan identifikazio datuak sartzea eta pdf-a inprimatzea, gero Ogasunean aurkezteko (hitzordua eskatu behar da).<br>○ Ogasunean bertan, laguntzarekin betetzea: IFZ eskatzeko, hitzordua eskatu behar da. |